

Matematikarako lagungarriak diren ideiak

Dislexiak zenbait arazo eragin ditzake matematikekin. Diskalkuliak eragindako arazoekin harreman zuzenik ez badute ere, komunak izan eta nahasi egin daitezke.

Zailatasunak Bigarren Hezkuntzan

- Hiztegia zailagoa da.
- Sekuentziazioa zailagoa da. Adibidez, berreketak egiten jakitea, edo 3ren karratua eta 3ren kuboaren ezberdinak direla ohartzea.
- Problema matematikoak ulertzeko zailtasun handiagoak, testu luze eta konplexuak baitituzte. Ikaslearentzat bereziki zaila da hautematea testuaren baitan zenbakizko informazioa nondik atera behar duen eta ulertzea kalkulu matematikoak nola egin behar dituen.
- Eragiketa matematikoa non eta nola hasi behar duen eta jarraitu beharreko pausoen ordena zuzena zein den jakitea.
- Emaiz zuzena lortu arren, soluzioa lortzeko jarraitutako pauso matematikoak frogatzeko gai ez izatea.
- Grafikoak erabiltzea eta 3 dimentsiorekin lan egitea zaila izan daiteke, baina zenbait ikaslearentzat zenbakizko operazioak egitea baino errazagoa da.
- Aljebra zaila eta nahasgarria izan daiteke.

Nola lagundu Bigarren Hezkuntzan

- Hiztegiaren ikaskuntza eta ulermenean lagundu.
- Problema matematikoen galderak elkarrekin irakurri. Lagundu zenbakizko informazioa aztertzen eta ariketa hori egiteko jarraitu behar dituen pausoen inguruan bere ondorioak ateratzen, marrazki errazen bitartez, behar bada.
- Azterketetan puntuak ematen dituzte formula bat edo problema bat ebazteko prozesua zuzen garatzeagatik. Lagundu bere kalkulu matematikoen pauso guztiak idazten.
- Kalkulagailua erabiltzeak kalkuluekin lagun diezaioke.
- Azalpenak ematerako orduan, erabili beti adibide argi eta zehatzak. Esate baterako, eskaiezaiozu laguntzeko kalkulatzeko gasolina litroko kilometrajea eta bidai bat egiteko behar den denbora.

Egokitzapenak Ebaluazioetan

Orokorrean, Hezkuntza Ministerioak Madrid con la Dislexia-ri 2016ko irailean bidalitako gutunaren arabera,

<http://plataformadislexia.org/wp-content/uploads/2018/03/Carta-del-Secretario-de-Estado.pdf>

- Denbora gehiago (%25 eta %50 bitartean).
- Formatu bereziak – *adb. letra handiagoa, lerroarteko espazio gehiago...*
- Baliabide material eta teknikoak – *biderkatzeko taula, ordenagailua, kalkulagailua.*
- Beste pertsona batek galderak eta testuak ozen irakurtzea.
- Aukera aniztun erantzunak markatzeko eskriba bat.
- Forma eta egitura ez dira ebaluatuko frogak ez badu hala jasotzen.